Ordizian, **2022ko otsailaren 24a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **24 de febrero de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ/PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

***ASUNTOS TRATADOS***

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2022ko otsailaren 10a ohiko bilkurako akta onartzea.
2. Ordizian, 2022-2023, euskara sustatzeko udaleku irekiak antolatu, kudeatu eta egiteko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartzea.

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

1. *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de febrero de 2022.*
2. *Expediente de contratación para la organización, gestión y realización de colonias abiertas para el fomento del euskara en Ordizia, los años 2022 y 2023.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

3. Ordiziako Jabekuntza Eskola Feminista sortu, dinamizatu eta koordinatzeko aholkularitza teknikoa kontratatzeko espedientea.

*3. Expediente de contratación de asesoría técnica para creación, dinamización y coordinación de la Jabekuntza Eskola (escuela de empoderamiento feminista) de Ordizia.*

4. Hutsik dauden merkataritza-lokalak berreskuratzeko diru-laguntzak onartzea.

*4. Aprobación de las subvenciones para la recuperación de locales comerciales vacíos.*

5. Zenbait txosten eta eskaera.

*5. Informes y solicitudes varias.*

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:04an**

**AMAIERA ORDUA 14:48an**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2022ko otsailaren 10ako bilkurako akta onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 10 de febrero de 2022***

Proposamena

**2022ko otsailaren 10ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 10 de febrero de 2022.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1,
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

- Iñaki Dubreuilek ez du bozkatzen ez baitzen egon aurreko Batzordean

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Ordizian, 2022-2023, euskara sustatzeko udaleku irekiak antolatu, kudeatu eta egiteko zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartzea.**

Proposamena

Kontratua esleitzeko abiarazi den kontratazio-espedientearen berri eman da. Kontratuaren helburua da Ordizian erroldatuta dauden edo Ordiziako ikastetxeetan ikasten duten haurrentzako (HH4 eta LH5 ikasturte arteko haurrak, 2011 eta 2017 urteen artean jaiotakoak) euskara sustatzeko udaleku irekiak antolatu, kudeatu eta egiteko zerbitzua kontratatzea, kontratu-izaera duen espedientean jasotako dokumentazio teknikoaren arabera.

Kontratuaren iraunaldia **bi urtekoa** izango da. Kontratua, ondoren, urtez urte **luzatu** ahal izango da, bi aldeek hala erabakitzen badute, baina gehienez, 4 urte iraun ahal izango du.

Kontratu honen zenbateko estimatua 38.000 eurokoa da, BEZ gabe, era honetan zatikatua: pertsonal gastuak, 35.000 €; asegurua, enpresa etekina, kudeaketa, 3.000 €; BEZ, 3.800 € (%10a). Prezioa jaitsi egingo da parte-hartzaile kopurua ere aurreikusitakoa baino txikiagoa bada.

Lizitazioaren oinarrizko prezioa 41.800 eurokoa da, %10eko BEZa barne.

Lizitatzaileek prezioa jaisteko eta eskaintza hobetzeko aukera izango dute.

Kontratuaren balio zenbatetsia, kontratuak izan ditzakeen luzapenak aintzat hartuta

***2.- Aprobación del expediente de contratación de la gestión del Contrato de servicios para la organización, gestión y realización de colonias abiertas para el fomento del euskara en Ordizia, los años 2022 y 2023***

*Propuesta*

*Se da cuenta del expediente de contratación incoado para su adjudicación, cuyo objeto consiste en la contratación del servicio de organización, gestión y realización de colonias abiertas para la promoción del euskara para niños y niñas empadronados en Ordizia o que estudien en centros escolares de Ordizia (niños y niñas de entre 4º de EP y 5º de EP nacidos entre 2011 y 2017), según la documentación técnica obrante en el expediente con carácter contractual.*

*La duración del contrato será de **dos años.** El contrato **podrá prorrogarse** por períodos sucesivos de un año, por mutuo acuerdo de las partes, con una duración máxima de cuatro años.*

*El importe estimado de este contrato es de 38.000 €, IVA no incluido, fraccionado en gastos de personal, 35.000 €; seguro, beneficio empresarial, gestión, 3.000 €; IVA, 3.800 € (10%). El precio se reducirá si el número de participantes es inferior al previsto.*

*El precio base de licitación es de 41.800 euros, IVA incluido (10%).*

*Los/as licitadores/as tendrán la posibilidad de reducir el precio, y de mejorar la oferta.*

*El valor estimado del contrato, considerando las posibles prórrogas del mismo, es de*

152.000 eurokoa da (BEZa kanpo).

Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiriaren berri eman da.

Hori guztia ikusita, honako hau proposatzea erabaki da:

**AKORDIO PROIEKTUA:**

**Lehenengoa.-** Ordizian, 2022an eta 2023an, Euskara sustatzeko udaleku irekiak antolatu, kudeatu eta egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea.

Lizitazioaren oinarrizko prezioa 41.800 eurokoa da, %10eko BEZa barne.

**Bigarrena.-** Gastua onartzea 227.07.326.30.0117 2022 partidaren kargura, eta kontratua finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzeko baldintza etengarriaren mende geratuko da esleipena, SPKLren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera.

**Hirugarrena.-** Lizitazioa arautuko duten baldintza administratibo partikularren eta teknikoen agiria onartzea, eta SPKLren 135. eta 156. artikuluetan ezarritako moduan argitaratzea.

**Laugarrena.-** Dagokion kontratazio-espedientea hastea, ohiko izapidearen bidez, eta hura esleitzeko prozedura irekia ezartzea, hainbat balorazio-irizpide erabilita.

*152.000 € (IVA no incluido).*

*Se da cuenta del pliego de cláusulas administrativas particulares y técnicas.*

*A la vista de todo ello, se acuerdo proponer el siguiente*

***PROYECTO DE ACUERDO:***

***Primero.-*** *Aprobar el expediente de contratación de la gestión del contrato de servicios para la organización, gestión y realización de colonias abiertas para el fomento del euskara en Ordizia, los años 2022 y 2023.*

*El precio base de licitación es de 41.800 euros, IVA incluido (10%).*

***Segundo.-*** *Aprobar el gasto con cargo a la partida 227.07.326.30.0117 2022, quedando sometida la adjudicación a la condición suspensiva de la efectiva consolidación de los recursos que han de financiar el contrato correspondiente, de conformidad con la disposición adicional tercera de la LCSP.*

***Tercero.-*** *Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la licitación, publicándose el mismo en la forma que determinan los artículos 135 y 156 de la LCSP.*

***Cuarto.-*** *Iniciar el correspondiente expediente de contratación, por el trámite ordinario, estableciendo el procedimiento abierto para su adjudicación, utilizando varios criterios de valoración.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maitane Alvarezek

*Maitane Alvarez*

Komentatzen du eskatzen duela 13.2.c puntuan aniztasun funtzionala eta irisgarritasun unibertsala barneratzea balorazio irizpideetan. Hemendik aurrera horrelako klausulak ezinbestean barneratzea garrantzitsua dela deritzo.

*Solicita incorporar en los criterios de valoración (punto 13.2.c) la diversidad y la accesibilidad universal. Considera imprescindible que de aquí en adelante se vaya incorporando en todos los pliegos este tipo de clausulas.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Ordiziako Jabekuntza Eskola feminista sortu, dinamizatu eta koordinatzeko aholkularitza teknikoaren kontratazio espedientea onartzea, prozedura ireki bidez.**

***3.- Aprobación del expediente de Contratación de la asesoria técnica para creación, dinamización y coordinación de la Escuela de Empoderamiento Feminista de Ordizia.***

**ESKATZAILEA: Ordiziako Udala**

***SOLICITANTE: Ordiziako Udala***

Kontratua esleitzeko abiarazi den kontratazio-espedientearen berri eman da. Kontratuaren helburua da Ordiziako Jabekuntza Eskola feminista sortzeko, dinamizatzeko eta koordinatzeko aholkularitza teknikoa eskaintzea, ikuspegi komunitario eta intersekzionaletik, eta udalerriko emakumeekin eta mugimendu feministarekin prozesu parte-hartzailea etengabe bultzatuz.

*Se da cuenta del expediente de contratación incoado para su adjudicación, cuyo objeto consiste en ofrecer la asesoría técnica para la creación, dinamización y coordinación de la Escuela de empoderamiento feminista de Ordizia, desde una perspectiva comunitaria e interseccional, y mediante el impulso constante de un proceso participativo con las mujeres del municipio y el movimiento feminista*

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da.

*La duración del contrato será de dos años.*

Kontratuaren balio zenbatetsia, 2 urteei dagokiena, 36.300 €-koa da ( % 21 BEZ

*El valor estimado del contrato, correspondiente a los 2 años es de*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

barne), prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko soilik.

*36.300 € (21% Iva incluido), a los únicos efectos de determinar el procedimiento y el órgano de contratación.*

Urteko lizitazioaren oinarrizko prezioa 18.150 €-koa da ( % 21eko BEZa barne).

*El precio base de licitación anual es de 18.150 € (21% IVA incluido)*

Lizatatzaileek prezioa jeisteko eta eskaintza hobetzeko aukera izango dute.

*Las entidades licitadoras tendrán la posibilidad de reducir el precio y de mejorar la oferta.*

Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiriaren berri eman da.

*Se da cuenta del pliego de clúasulas administrativas particulares y técnicas.*

Hori guztia ikusita, honako hau proposatzea erabaki da:

*A la vista de todo ello, se acuerda proponer lo siguiente:*

**PROPOSATZEN dut:**

***PROPONGO:***

**Lehenengoa.-** Berdintasun Arloaren kontratazio-espedientea onartzea, Ahalduntze Eskola Feministaren proiektuari dagokiona.

***Primero.-*** *Aprobar el expediente de contratación del Area de Igualdad correspondiente al proyecto de Escuela de Empoderamiento feminista*

Lizitazioaren oinarrizko prezioa 18.150 €-koa da (% 21eko BEZa barne).

*El precio base de licitación es de 18.150 € (21% IVA incluido)*

**Bigarrena.-** Gastua onartzea 1 226.99.231.50.0108 2022 partidaren kargura.

***Segundo.-*** *Aprobar el gasto con cargo a la partida 1 226.99.231.50.0108 2022*

**Hirugarrena.-** Lizitazioa arautuko duten administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria onartzea.

***Tercero.-*** *Aprobar el pliego de claúsulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la licitación.*

**Laugarrena.-** Kontratazio-espedientea ohiko izapidez hastea, esleipenerako prozedura irekia ezarriz, hainbat balorazio-irizpide erabiliz.

***Cuarto.-*** *Iniciar el correspondiente expediente de contratación, por el trámite ordinario, estableciendo el procedimiento abierto para su adjudicación, utilizando varias criterios de valoración.*

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

<u>Bozketa</u>



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Hutsik dauden merkataritza-lokalak berreskuratzeko diru-laguntzak onartzea).**

Proposamena

2021ko abenduaren 2ko Tokiko Udal Batzarrak "Ordiziako lokal komerzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren oinarri arautzaileak 2021" onartu zuen

Deialdiaren iragarkia 2022ko urtarrilaren 4ko 2.G.A.O.ean argitaratu zela.

Oinarrietako 14.artikuluarekin bat etorriz, 2022ko otsailaren 7an Epai Mahai kalifikatzailea bildu zela, eta honako proposamena luzatu duela Programaren barne diru-laguntzen banaketa egiteko (erantsitako taula)

Hori guztia ikusita, ondorengo akordioa proposatzea erabaki da

**AKORDIO PROIEKTUA:**

* Ordiziako lokal komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren barne, epai Mahaiak 2022ko otsailaren 7ko bileran proposatutako zerrenda onartzea, hori dena honako

***4.- Aprobación de las subvenciones para la recuperación de locales comerciales vacíos***

*Propuesta*

*En la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 2 de diciembre de 2021, se aprobaron las Bases reguladoras del "Programa de ayudas a emprendedores para la recuperación del locales comerciales vacíos 2021*

*Que el anuncio de dicha convocatoria fue publicada en el B.O.G. nº 2 de fecha 4 de enero de 2022.*

*Que de acuerdo al artículo 14 de las Bases en fecha 7 de febrero de 2022 se reunió el Tribunal Calificador quien ha elaborado la siguiente propuesta para el reparto de subvenciones en dicho Programa. (tabla adjunta)*

*A la vista de todo ello se acuerda proponer el siguiente:*

***PROYECTO DE ACUERDO:***

** Aprobar dentro del programa de ayudas a emprendedores para la recuperación de locales comerciales vacíos, la relación propuesta por el Tribunal calificador de fecha 7 de febrero de 2022, en las*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

baldintzen arabera:

- Dirulaguntzen ordainketa baldintzatuko da Programaren oinarriak jasotako baldintza guztiak betetzera, eta horretarako dagokion jarraipena egingo da.

- Programa honekin lotutako edozein ondorioetarako, aparte kontuan eduki beharko dira Ordiziako Udalaren dirulaguntza Ordenantzan eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa.

*siguientes condiciones*

- *El pago de las subvenciones se condiciona al cumplimiento de todos los requisitos establecidos en las Bases del Programa y se hará el seguimiento oportuno.*

- *Para todo lo relacionado con este programa se deberá tener en cuenta además lo establecido en la Ordenanza de subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia y la Ley 38/2003 General de Subvenciones.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Idazkariak

Aipatzen du diru-laguntzak ematea onartzen duen erresoluzioa BDN-n argitaratu beharko dela ezinbestean.

*La Secretaria*

*Indica que la resolución otorgando las ayudas se deberá de publicar obligatoriamente en la BDN.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## 5.- Zenbait txosten eta eskaera

## *5.- Informes y solicitudes varias.*

Iñaki Dubreuil

Zinegotziak (PSEE) honako informazioa eskaerak egiten ditu:

2022OHDA0004 obra akta:

- 3 puntua 2021KEXA0003 Santa Maria:

Alkateak

Adierazten du kexa eraikinaren egoera desegokitik datorrela eta bizilagunek aurri-espedientea hasteko eskatzen dutela. Udala Goiturekin harremanetan jarri da eta eraikineko IT txostena eskatu die. Udal-teknikariek beharrezko ikuskapena egin dute, eta, hori oinarri hartuta, zenbait arazo konpontzeko eskatu zaie 202OEJC0003 txostenaren bidez.

- 4 puntua 2021OHK00012 Elkano 3ko lokala etxe bihurtzeko eskaera.

Ordizian ez dago hirugarren sektoreko lokalak etxebizitza bihurtzeko aukerarik. Baina lokal honen ezaugarriak bereziak direnez, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren azterketa egiten ari da Arkitektoa eskaera honi erantzun bat emateko asmoz.

- 6. Puntua 2022OJE0002 eta 2021KEXA0134 Arteaga 1 espedientea.

Txosten teknikoa egin da eta jabeari eskaera egin zaio etxebizitza horiei itxitura egokia jartzeko.

*Iñaki Dubreuil*

*Como concejal (PSEE), solicita información sobre los siguientes expedientes:*

*2022OHDA0004 acta de obras:*

- *3 punto 2021KEXA0003 Santa Maria*

*El Alcalde*

*Indica que la queja proviene de la situación no adecuada del edificio y que los vecinos solicitan se inicie expediente de ruina. El Ayuntamiento ha contactado con Goitu y les ha requerido informe de IT del edificio. Los técnicos municipales han efectuado la inspección oportuna y en base a ello mediante el informe 202OEJC0003 se les ha solicitado subsanación de algunos problemas.*

- *4 punto 2021OHK00012 reconversión de local en vivienda en Elkano 3.*

*En Ordizia no existe posibilidad de reconversión de locales terciaros en vivienda. Pero atendiendo a que este local es de características muy especiales, la Arquitecta está estudiando si con el PERCH es compatible o no el cambio de uso.*

- *6. Punto 2022OJE0002 y 2021KEXA0134 expediente de Arteaga 1.*

*Se ha elaborado el informe técnico y al propietario se le ha solicitado efectúe el debido cierre de las viviendas.*

- 7. Puntua 2022IGAP0004, isurien jaurtiketa

Gaia Gipuzkoako Urak-ek darama eta une honetan baimenik ez duten jarduera batzuei baimena legeztatzea eskatu behar zaie.

- 8. Puntua 2022OHKO0007 Okorrobidea,

Kontsulta egin dute salmentaren inguruan eta aztertzen ari dira nola egin daitekeen lurraren erosketa.

Iñaki Dubreuil jaunak adierazten du agian lurraren erosketa indibidualizatua egiteko aukera eman beharko litzatekeela.

- Galdetzen du ea gaur egun Irisgarritasun Plana egiten amaitu den.

Alkateak

Erantzuten dio amaitu gabe dagoela udal-arkitektoak proposamen batzuk aztertu nahi dituelako.

- Sagastian eraikitzeko eskubideari buruz Otegi familiak egindako proposamenari dagokionez,

Alkateak adierazten du proiektuaren bideragarritasuna berrikusten ari direla.

- *7. Punto 2022IGAP0004, el tema de control de vertidos.*

*Es un tema que lo trata Gipuzkoako Urak. Se está requiriendo la legalización de algunas actuaciones que actualmente no tienen los permisos oportunos.*

- *8. Punto 2022OHKO0007 Okorrobidea.*

*Han efectuado consulta sobre la compraventa y se está estudiando cómo se puede efectuar la compra del suelo.*

*El concejal Iñaki Dubreil indica que tal vez se deba de dar opción de hacer la compra individualizada del suelo.*

- *Pregunta si actualmente ya se ha terminado de elaborar el Plan de Accesibilidad.*

*El Alcalde*

*Indica que está sin finalizar atendiendo a que la Arquitecta municipal quiere analizar unas propuestas.*

- *En relación a la propuesta de la familia Otegi sobre el derecho de edificar en el manzanal*

*El Alcalde indica que se está revisando la viabilidad de la misma.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

- Floreaga espedientearen inguruan

Alkateak

Adierazten du exekutatzen ari dela eta gaur egun bi arkitekto-talde ari direla lanean bi proiektu idazteko.

- Institutuaren estalpearen inguruan aldiz,

Alkateak

Adierazten du lurzorua edo lursaila Eusko Jaurlaritzarena dela eta oraindik ez dutela proiekturik aurkeztu.

2022OHDA0006 obra akta:

- 2. Puntua Lukusain plaza 2022KEXA0019

Honen inguruan adierazten da plazaren jabetza pribatua dela, baina erabilera publikoko zortasuna duela.

Beraz, arazoak nondik datozen aztertu behar da, Udalari ohiko mantentze-lanak baino ez baitagozkio.

- *En relación al expediente de Floreaga*

*el Alcalde*

*Indica que se está ejecutando y que actualmente están trabajando dos equipos diferentes de arquitectos en la redacción de dos proyectos.*

- *En cuanto a la cubierta del Instituto*

*el Alcalde*

*Indica que el suelo o el terreno es del Gobierno Vasco y que actualmente aún no han presentado proyecto alguno.*

*2022OHDA0006 acta de obras:*

- *2. Punto expediente 2022KEXA0019 sobre Lukusain plaza.*

*Se indica que es propiedad privada pero con servidumbre de uso público de la plaza.*

*Por lo tanto se debe de analizar de dónde provienen los problemas atendiendo que al Ayuntamiento únicamente le compete lo que es el mantenimiento ordinario.*

- 4. Puntua laguntzak irisgarritasuna eta birgaitzearen inguruan

Alkateak

Adierazten du irisgarritasun-laguntzei dagokienez, lehia-prozeduran ateratzen direla eta nahiko ondo landuta daudela, baina maximoak berrikusi behar direla. Fatxadak birgaitzeko laguntzetan, berriz, aurrekontu-partida behar bezala ezartzea eta zerga-hobariak Ordenantza Fiskalean adierazitakoarekin bat datozen berrikusi beharko da (beharbada kendu egin beharko dira). Beraz, berrikusi eta egokitu beharko dira.
Zerbitzuen inguruan Dubreuil zinegotziak honako galderak egin ditu:

- Itaia zeintzuk diren galdetzen du zinegotziak.

Maitane Alvarez zinegotziak adierazten du gazte sozialisten barruan dagoen talde feminista dela.

- Pintadak egitearen inguruko ordenantza aldatuko den galdetzen du.

Maitane Alvarezek

Erantzuten du egun pintada denak garbitzen jarraitzen duela Udala

Alkateak

Gai batzuk jakinarazi nahi ditu:

- Etxez etxeko laguntzaren inguruko pleguen azterketa egiten ari da Udala. Nahiko konplexua da eta begiratu beharko da langileen lan

- *4. Punto ayudas de accesibilidad y rehabilitación de fachadas.*

*El Alcalde*

*Indica que en cuanto a las ayudas de accesibilidad se convocan en procedimiento de concurrencia y están bastante bien elaboradas aunque se debe de revisar los máximos. En cambio en las ayudas de rehabilitación de fachadas se deberá de revisar si el establecer adecuadamente la partida presupuestaria y si las bonificaciones fiscales son acordes a lo que indica la Ordenanza Fiscal (posiblemente se deberán de suprimir). Por lo tanto se deberán de revisar.*

*En relación a servicios el Sr.Dubreuil pregunta lo siguiente:*

- *Quienes son Itaia.*

*La concejala Maitane Álvarez indica que son el grupo feminista incorporado dentro de jóvenes socialistas.*

- *En relación a las pintadas pregunta si se pretende modificar la normativa.*

*Maitane Álvarez*

*Indica que ahora están limpiando todas las pintadas*

*El Alcalde*

*Quiere poner en conocimiento los siguientes temas:*

- *Se está estudiando la elaboración de los pliegos del servicio domiciliario. Es un tanto complejo y se está revisando como incorporar*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

hitzarmenaren betetzea nola barneratu daitekeen egoki.

- Udal Idazkariaren opor eskaera dela eta, Udalak erabaki du udalaren onuran onartzea oporraldi hau.
- Ordizia Lantzenen inguruko sententziaren berri eman du. Exekuzio akatsa egon dela eta Udal kontuak enbargatu dituela auzitegiak prozedura guztiz jarraitu gabe (ez baitzaio gure prokuradore eta abokatuari borondatezko epean ordaintzeko jakinarazpenik egin). Gauza da Filipinak 40-42 zenbakiko auzia dela eta, 425.000 euro ordaindu behar direla. Enbargoa kentzeko ordainketa egin nahi da ahal den azkarren (dirua gordailuan utziz) eta ondoren etxea saldu zorra kitatzeko asmoz.

*debidamente las condiciones laborales del convenio de los trabajadores.*

- *En relación a la solicitud de vacaciones de la Secretaria Municipal, se ha decidido conceder las vacaciones para el bien del Ayuntamiento.*
- *En relación a la sentencia sobre Ordizia Lantzen. Indicar que ante la existencia de un error procesal, atendiendo a que se han embargado las cuentas (sin previo aviso a nuestro procurador o abogado del inicio del pago voluntario) se está revisando. La cuestión final es que en principio en el juicio de Filipinak 40-42 se debe de pagar 425.000 euros. Para el levantamiento de los embargos se procederá, a la mayor brevedad posible, a depositar el dinero y a tramitar la venta de la casa para saldar la deuda.*

Maitane Alvarez

Zinegotziak adierazten du Mallutz poligonoko kideekin egindako bileran aparkaleku berriak eskatu direla, baita poligonoko asfaltoa konpontzeko ere.

*La concejala Maitane Alvarez*

*Menciona que en la reunión efectuada con los miembros del polígono de Mallutz se han solicitado nuevos aparcamientos y que se adecente el asfalto del polígono.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Galde-erreguak**

Ez da izan

***6.- Ruegos y preguntas.***

*No ha habido*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

RUIZ DE EGUINO GARCIA-ECHAVE NAIA
2022/4/11

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**ORDEZKO IDAZKARIA /** LA SECRETARIA ACCIDENTAL<br>Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAADREJP.ZBYu |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus   www.ordizia.eus